



Zomorroenak, aurreneko kolore printzak

ARANO
INAUTERIAK

3



Gizon bat erreskatatu zuten Mandoegin

GOIZUETA
ISTRIPUA

5



Andoaindik Hernanira, piano joleen urre eta zilarrezko 24 domina

HERNANI
MUSIKA

4

Estiloa sortzen, fusiotik

Ainhoa Larrañaga hernaniar gazteak bere aurreneko diskoa kaleratu berri du: 'EskuMinak'. Barru-barrutik hitz egiten du bere kantuetan, eta entzun duenetik edan du, musika estilo desberdinen arteko fusioa sortzeko. Jazza, swinga, soula... Denak nahastu ditu, baina euskeraz, «horrela sentitzen» duelako.

2-3



Mutil nagusiek ezin, Navarvoley lider gogorraren aurrean

HERNANI
BOLEIBOLA

6

AGENDA

GAUR 19:00 : 'Koaderno gorria' aztergai, literatur saioan

HERNANI



BIHAR 09:30 eta 19:00 : Barreterapia, Maialen Viaña psikologoarekin

ASTIGARRAGA

BIHAR 19:00 : Atzerritartasun Legeari buruz, hitzaldia

HERNANI

Hernaniko Ohorezko Erregionalak, beste garaipen bat etxean

Bolada onari segida eman zioten txuri-berdeek larunbatean, Amaikak Bat nabarmen menderatuta (4-0).

Hernaniko Ohorezko Erregional Preferenteak, Amaikak bat taldearen aurka jokatu zuen pasa den larunbatean Zubipen, eta (4-0) eko emaitzarekin amaitu zuten partidua. Horren ondorioz, sailkapenean bigarrena da, 46 punturekin. Eibar liderra eta Anaitasuna hirugarrenaren arteko partidua ez zen jokatu, kutsaduragatik.

HERNANI
FUTBOLA

7

Hodei Lujanbio hirugarren Lezoko mendi lasterketan

Asteburuan mendi, errepide, kros eta pistako lasterketak jokatu dira hainbat lekutan eta denetan aritu dira bailarako korrikalariak.

URUMEA
ATLETISMOA

8

altzuetasagardotegia.com



altzueta
HERNANI

Osinaga, 7. Hernani
943 55 15 02

«Nahi gabe sortu dut fusio bat, eta gustatuko litzaidake hemendik aurrera hortik jarraitzea»

Aurreneko diskoa kaleratu berri du Ainhoa Larrañagak; 'EskuMinak'. Internet bidez, 'ainhoaskuminak@gmail.com' helbidera idatzita erosi daiteke. Proiektu gehiago ere baditu buruan.

HERNANI MUSIKA

EskuMinak, nori?

EskuMinak da kanta batzuk egin nituelako orain bi-hiru urte. Kanta guztiak nire bizitza pertsonaleko gaien ingurukoak dira, eta edozeini gerta dakizkioken egoerez ari dira. Beste batzuk orain dela gutxi egindako kantak dira. Baina, sentimendu eta pertsona haiei, momentu haietan inguruan nituenei, dagoeneko ez daudenei, agur polit bat eman nahi nien. Azkenean, ni naizelako; nire kantak dira eta maitasunez kantatzen ditut. Gehiago zen borobiltzeko, lehen nintzen hori. Gainera, hitz jokoa ere bada; kolore gorri eta beltzez idatzita dago, 'eskuetan mina' ere adierazi nahi nuelako, neukan horrek min egiten zidalako, baita ere.

Zerk egiten zizun min?

Asko agertzen dira menderakuntzako erlazioak. Edo etxean bakarrik gaudenean egiten ditugun hausnarketak, gure buruari *kaña* sartzen. Nahiko *kaña* sartzen diet letretan, nire buruari eta ingurukoei. Mina azkenean hori zen, kantatzen nuena kezka bat zelako, edo oroitzapen bat edo kritika bat.

Hor denean, nola aukeratzeko da single-a?

Kantu mugitua aukeratu dut. Bakarra da, oso pertsonala ez dena. Pisuzkoa du letra, baina ez dago inor nahastua. Neutroa da.

Estiloari dagokionez, jazz, swing, soul... Definitu daiteke zure estiloa?

Nik ere ez dakit! Konturatu naiz fusio bat sortu dudala. Metrikoki pop-a da. Ez dauka metrika klasikorik. Baina erabiltzen ditudan instrumentuak eta soinuak ez.

Nahi gabe sortu dut fusio bat, eta gustatuko litzaidake hemendik aurrera hortik jarraitzea. Gainera, kanta guztiak oso desberdinak dira beraien artean: jazz klasiko puntuduna, soinu bereziak dauzkana, pianoan bestea, funky-a... Ez dago ezer, nire ustez, oraindik, markatzen duena nire estiloa. Denari ekiten diot.

Nola iritsi zara denak lantzerara?

Entzuten dudana musika da. Denboraldi batean izan nuen nire radarra galdua musika aldetik, asko jaten nuen besteek entzuten zutenetik. Gero hasi nintzen ikasten nire kriterio propioa edukitzean. Orduan, asko jotzen nuen jazzera, swingera, soulera, RnBra... Horrelako musika estilora. Nahi gabe, jan egiten duzu. Eta horregatik, musika sortzean ere, ateratzen zitzaidan entzuten nuen hori. Gainera, ikusten nuen euskeraz ez neukala horrelako musika estilorik, gaur egun. Ez daukat horrelako musika sortzen duen erreferentiarik. Orduan, asko jotzen nuen nazioartekora. Etxean udaran amak askotan jartzen zidan jazz esnatzeko. Da estilo bat, gehien iristen zaidana. Entzuten duguna sortzen dugu. Entzuten dudana musika da.

Euskeraz egitea garrantzitsua zen zuretzat?

Natural atera zitzaidan, niretzako kantak zirelako. Ez nekien honetara iritsiko nintzenik. Ez dakit gaztelaz idazten oraindik. Ez naiz gustora sentitzen. Esporatu behar dudana alderdi bat da. Musika nazioartekoa izatea ondo dago, denek eusteko musika horri. Ez nuen nahi folklorea. Azkenean, beste nonbaiteko folklorea ez dut gertu sentituko, baina jazz-a, beste hizkuntza batean izanda ere, sentitu dezaket nirea be-



Aurreneko diskoa, 'EskuMinak', aurkeztu berri du Ainhoa Larrañagak.

zala. Beraz, euskeraz idatzi nahi nuen, ez beste hizkuntza batean, horrela sentitu nuelako sortzean. Ikusten ari naiz baita ere, musika aldetik badagoela iraultza moduko bat. Eboluzionatzen ari da euskal musika ere. Batzuek egiten dute reggaetona euskeraz, auto-tune gabe, eta ulertzen da oso ondo, zer esaten duten. Ikusten dut aurrera egiten ari garela eta nik horretan parte hartzen dudala uste dut, eta gustatuko litzaidake euskeraz kantatzen jarraitzea. Nire hizkuntza da eta horrela sentitzen ditut hitzak.

Kantu batzuk zaharragoak dira... Nolako izan da diskoa egiteko prozesua?

Nik nire kantak banituen, baina edozeinek izan ditzakeen bezala. Garai horretan, Iker Laurobarekin egiten nituen kontzertu batzuetan bigarren ahotsak. Eta egun batean ausartu nintzen kanta batzuk kantatzera. Gustatu zitzaizkion,

eta esan zidan etxean bazegoela grabatzeko modu bat. Baina haunditu egin zen dena, Katapultan (euskal sortzaileak promozionatzen dituen plataforma) izena eman nuelako. Hartu egin ninduten. Baina esan zidaten bi hilabetez eduki behar nuela prest talde oso bat, jakin bakarlariz izango nintzen edo talde bat, zein izango zen izena, zenbat kantukoa izango zen diskoa... Nik ez neukan kanta bakar bat ere egina musikalki. Etxe-ko txapuzak ziren. Beraz, bi hilabetez bost lagun hartu eta hasi ginen sortzen. Nireak ziren ideiak, esaten nuen nola nahi nituen, eta joan ginen sortzen. Orduan bai, pentsatu genuen eskuartean bagenuela zerbait. Gainera, disko bat ere behar zen Katapultari emateko. Beraz, Axular, Mutrikuko estudioa ezagutzen nuen Golazen-etik, eta hara joan ginen. Nire ametsa zen hau, eta gizendu egin nuen. Pixka bat korrika eta presaka ibili gara, baina asko disfrutatu dugu.

«Ez daukat horrelako musika sortzen duen erreferentiarik [euskeraz]»

Ikaragarria izan da zein garapen izan duen.

Gazte eta hasiberri, nola kudeatzen da talde bat?

Erreparoa ematen zidan. Hauek denak musikariak, eta nik ez dakit ezer! Gainera, ni baino zaharragoak dira... Baina banekien zer nahi nuen, eta oso ondo ulertzen naute. Asko eskertzen diet nirekin egotea. Oso onak dira. Diskorako ez zuen balio, baina zuzenekoetan, kantuen artean soloak dauzkate denek. Ukitu hori eman nahi nion.

20 urte oraindik egin gabe ere, esperientzia faltarik ez daukazu... Goiazan, Jazzaldia, kolaborazioak... Esperientzia horietatik zer gordetzen duzu?

Aportatu didate egun naizena. Apaltasuna, lan egiteko jarrera, harremanak nola eraman, nola kudeatu hori guztia eskuartean edukitzea, jakitea zertan ari zaren eta zeinentzako egiten ari zaren egiten ari zaren hori... Ikasi dut asko. Pertsonalki hazi naiz asko. Lehen oso autoestima bajua nuen, eta orain askoz hobeto nago. Bihoztza betetzen didan lan bat da.

Orain Madrilen interpretazioa ikasten ari zara. Diziiplina desberdinak jorratu nahi dituzu?

Kontua da musika aldea dela Ainhoa Larrañaga espresatzeko bide bat, nire burua espresatzeko. Baina interpretazioa da, baita ere, filtro bat, zu izateko, edo zure ni-a espresatzeko. Dira bi gauza ikaragarriak. Eta nik aktore izan nahi dut. Jarraitu nahi dut lanean. Prest nago. Eta horretan nabil, kasting-ak egiten. Ez dit mundu batek bestea jaten.

Aukera gehiago dago Madrilen? Ikasteko bai. Han daude eskola

Kronika

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 08 99
688 660 714

Lege gordailua:
SS-1469/2018
ISSN: 2659-5036

Eposta:
kronika@kronika.eus,
astigarra@kronika.eus,
urumea@kronika.eus eta
publi@kronika.eus.
www.kronika.eus

Lan-taldea:
A. Arbelaitz, O. Egaña,
I. Goñi, L. Goñi, B. Los
urumea, A. Moreno, J. Osa,
M. Ramirez de Alda eta
J. Zubitur.

Argitaratzailea:



KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 27 99
Eposta: dobera@dobera.eus
www.dobera.eus

Laguntzaileak:



Hernaniko Udala



Astigarragako Udala



Ereñotzuko

Auzo Udala



GOIZUETAKO UDALA



ARANOKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DOBERA BAZKIDEAK
KRONIKALARIAK

TOKIKOM



pila bat, metodologia pila batekin. Aukeratu dezakezu nahi duzun guztia, dirua baldin badaukazu, noski! Zaila egiten zait oraindik independente izatea... Baina, hango jendea da izugarria. Oso irekia da. Hainbeste jende dagoenez, pertsona desberdin bat ez da desberdina. Gainera, badirudi, gero eta desberdinagoa, hobe delako. Asko gustatzen zait giro hori. Han ezagutzen hasi naiz musikari pila bat. Taberna batean ere eskaini didate kantatzeko, eta interpretazioaren aldetik, kasting asko dago. Han egon nahi dut. Artistak daude toki guztietan. Inspiratu egiten zaituzten pertsonak dira, zu egiten ari zarenean egiten ari direlako. Ikasi egiten da besteengandik. Pisukideak ere, biak, aktoreak dira, eta asko laguntzen diogu elkarri.

Diskoa bukatu duzu. Baina, horrekin bukatzen da lana?

Ez da bukatzen, ez! Kontzertuak daude. Martxoaren 6an, Emakumearen Egunaren bueltan, Sara Zozaya, Belako, Maren eta

ni izango gara, bakoitza 20 minutuko kontzertuak ematen. Eta gertatuko dira gauzak. Ondo dator kit. Inbertitu dudana dirua bueltan etortzen delako; Madrilen ikasten jarraitzeko behar dut. Ez da merkea. Lana sortzen zaidan bitartean, itzuliko naiz. Egiten ari naiz ikasten ari naizen hori.

Disko aurkezpena Dokan egin zenuen hilaren hasieran. Zer moduz sentitu zinen?

Oso ondo! Ikaragarriko kontzertua izan zen, borobila atera zen. Musikariak ere oso pozik geratu ziren eta esan zidaten bolorik onena izan zela. Kontzertu erdian negarrez hasi nintzen. Ohituta nago publikoak ni ez ezagutzera. Baina egun horretan nire lagun guztiak zeuden, familia... Denak ezagunak ziren eta inpresioa egiten zuen. Badakite nondik natorren. Momentu batean eskerrak ematen hasi nintzen eta emozionatu egin nintzen. Jendeak gero esan zidan nirekin emozionatu zela.



Zuzenean edo internet bidez lortu daiteke 'EskuMinak' diskoa.

Gehiago izango dira?

Nire asmoa da kontzertuak ematea eta diskoak saltzea. Deitzen badidate, baietz esango dut. Eta deitzen ez badidate, nik joko ditut ateak!

Nola daramazu horrek dakarren beste lan hori guztia?

Oso gaizki! Fakturak eta abar! Ez nekien musika mundua horrelakoa izango zenik. Banekien zure kontuak eraman behar ze-

nituela, baina ez nekien hainbeste papeleo egongo zenik. Gai delikatuak dira, eta ikasten ari naiz azaltzen didatelako eta laguntzen didatelako... Baina batxilergoan erakutsi behar lukete!

Madriren interpretazioarekin ari zara. Eta musikalki?

Nire kabuz. Nire bziitza pertsonaleko denbora erabiltzen. Orain, adibidez, musika elektronikoa sortu nahi dut, akustikoarekin batera. Konposatzeko era desberdinak bilatzen ari naiz, mobileko aplikazio bategatik, ekipo bat erositara... Nahiko autonomoki ari naiz. Baina gitarrak klaseak hartu nahi ditut. Ez nekien konposatzen eta belarriz egiten. Ez dakit gehiago, eta beraz, ikasi egin nahi dut, soinu desberdinak ikasteko, sortzen jarraitu ahal izateko.

Proiektu hau bukatu gabe, gehiago daukazazu!

Bai! Hau grabatu bitartean bantuen beste kantu batzuk gordeta. Izango da gehiago! **K**



Goizean goiz mugitzeak ez zituen uxatu aranoarrak, Inauteriak ospatzetik.



Hainbat baseritako atariak koloreztatu zituzten zomorroek.

Eguzki printzek argituta Aranon, zomorroak

ARANO INAUTERIAK

Larunbata izan zuten Inauteriak ospatzeko eguna, Aranon. Goizean goiz, 08:00etan jarri zuten hitzordua zomorroek, Beltsoko bordan, eta Izer eta Alabierren trikitixa eta pandero doinuek lagunduta ekin zioten puska biltzeari eta dantzazeari. Eguzkiak bezainbeste argitu zituzten bazterrak jantzi koloretsuek, eta epeltasun horrek lagunduta gustora eta giro ezin hobean egin zuten buelta, txokorik txoko. Bazkaritan indarrak hartuta, gaztetxoek hartu zuten erreleboa arratsaldean, Zahagi Dantzan.

Ohitura zaharrak, etorkizunera

ARANO INAUTERIAK

Aspaldikoa da Aranon, zomorro koloretsuak Inauterietan puska biltzen ateratzeko ohitura. Baita Zahagi Dantza ere. Gazte-

txorik ez dute falta izan aurten, aterik ate giroa koloreztatzeke, eta dantzan erreleboa hartzeko. Zomorro tiki eta haundi, Inauteririk izanen dute oraindik.



Dantza eta dantza pasa zuten eguna, zomorroek.

Arandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobila: 665 735 224
20120 Hernani

sulabe

Valella
okindegia

Nagusia 27
Astigarraga
943 33 24 10

'Koaderno gorria' liburuari buruz solasean gaur, ikuspegi feministatik

Arratsaldeko 19:00etan izango du otsaileko saioa, Udal Liburutegian, Kattalin Minerrek gidatutako mintegiak. Izena eman behar da.

HERNANI LITERATURA

Segida izango du gaur, Hernaniko Udal Liburutegian, Kattalin Minerrek gidatutako literatur mintegiak: *Emakumeen euskal literatura ikuspegi feministatik*. Eta beraz, hilerro bezala, liburu bat irakurri eta hari buruz solasean ariko dira, ikuspegi feminista batetik begiraturik. Oraingo txandan, Arantxa Urretabizkaia idazlearen *Koaderno gorria* izango dute esku artean.

Arratsaldeko 19:00etan hasiko dute saioa, eta doakoa eta irekia da partehartzea, 16 urte-tik gorakoentzat; baina horretarako, alde zuzenetik eman behar

da izena, Udal Liburutegian bertan, espazioa mugatua baita.

Arrazoi politikoak tarteko, bere senarra eta umeak utzi behar izan zituen emakume bat da protagonista. Zazpi urtez haien berri ez izan ondoren, jakin nahi du nola iritsi haurrekin harremana izatera, haiek oraindik gogoan ote duten edo amaordekoak bete duen haren lekua... Horretarako bidali du mezularia Venezuelara, Koaderno Gorriarekin.

Maitasunari buruzko bi liburu gomendatuta, liburutegiak Bestalde, liburu berriak gomendatzen ditu Hernaniko liburu-



tegiak, tarteka; eta atzokoan, maitasunari edo maiteminarri buruzko bi liburu gomendatu zituen: *Miren eta erromantizismoa*, Ramon Saizarbitoriarena; eta *Breves amores eternos*, Pedro Mairalena. Gomendatutako liburuak ikusteko: liburutegia.hernani.eus/gomendioak. **K**



Maryam Banane, zozketako saria jasotzen.

Atzerritartasun Legeari buruz, saioa bihar

Saio informatiboa antolatu du Amher elkarteak, arratsaldeko 19:00etan Biterin. Asistentzia baieztatzea eskatu dute.

HERNANI AMHER

Atzerritartasun Legeari buruz, informazio saioa antolatu du Amher elkarteak, bihar arratsalderako, Biltzen Integrazio-rako eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzuaren laguntzarekin. Biterin izango da saioa, 19:00etan hasita, eta Elena Statik eskainiko du, Sos Arrazakeriako kideak.

Urte osoko arreta zerbitzuaz gain, hainbat ekintza antolatzen ditu Amherrek, urte osoan zehar; eta horietako bat izango da, biharko prestatu dutena.

Atzerritartasun Legeari buruz antolatuko dituzten informazio saioetatik, aurrenekoa da.

Gaiaren inguruan interesa duten guztiei zuzenduta dago, eta irekia da, baina bertaratzeko asmoa dutenei, asistentzia baieztatzea eskatu diete. Horretarako, mezua bidali behar da *WhatsApp* bidez, 671 116 414 telefono zenbakira, eta asistentzia konfirmatu, izen-abizenak zehaztuz.

Maryam Banane saritua, olioaren zozketan

Bestalde, joan den ostegunean egin zuen zozketa Amherrek, jarritako gaiari buruzko testuak bidali zituztenen artean: *Nola eragiten du klima aldaketak zure herrialdean?* Maryam Banane izan zen saritua, eta hortaz, berak jaso du litro bat olioko saria. **K**

Domina sorta ederra Andoainen, piano-jole gazte hernaniarrek

Hernani Musika Eskolako 25 ikaslek hartu zuten parte Andoaingo Piano Jaialdian, eta urrezko 15 domina eta zilarrezko bederatzi lortu zituzten.

HERNANI MUSIKA

Urteroko zitari hutsik egin gabe, Andoaingo Piano Jaialdian izan ziren Hernani Musika Eskolako piano-jole gazteak. 25 ikaslek hartu zuten parte, jaialdiaren 15garren edizioan: Jon Aldave, Naia Alberdi, Sara Andres, Hize Andueza, Martin Arraztio, Andy Barahona, Andrea Dominguez, Ibon Echeguia, Unai Estevez, Irune Fernandez, Ainhoa Galan, Joane Giraldo, Joseba Korta, Radina Kirilova, Unai Lopez, Diana Martin, Unai Muñoz, Intza Narro, Ander Olasagarre, Sara Ortiz, Leire Perez, Nayarit Perez, Libe Rodriguez, Noa Rodriguez eta Auritz Txintxurreta.

Primeran aritu ziren denak, eta domina sorta ekarri zuten: urrezko 15 domina, eta zilarrezko bederatzi.

Joseba Kortak, aurreneko saria Gainera, aurten beteko dira 250 urte, Ludwig van Beethoven musikari ezaguna jaio zela; eta horren harira, atal berezi bat antolatu zuten, jaialdian bertan. Joseba Kortak hartu zuen parte horretan, lau eskutako modalitatean, eta aurreneko saria lortu zuen hernaniarrek! **K**



Hernani Musika Eskolako piano-joleak, Andoainen lortutako dominekin.

Mendiko eski ikastaroa, hurrengo asteburuan

Otsailaren 29an eta martxoaren 1ean izango da, Mendiriz Mendik antolatuta; eta bilera egingo dute hilaren 24an, interesatuekin.

HERNANI MENDIRIZ MENDI

Datorren asteburuan ez, hurrengoan egingo du mendiko edo trabesiako eski ikastaroa, Mendiriz Mendi elkarteak; otsailaren 29an eta martxoaren 1ean, hain zuzen ere. Eta ikastaroan izena emateko, dagoeneko zabalik dago epea. Elkartearen lokalean (Iturregi plaza) egin behar

da, astelehen, ostegun edo ostiralean, iluntzeko 20:00etatik 21:00etara bitartean.

Bilera otsailaren 24an, xehetasunak emateko

Ikastaroari buruzko xehetasun gehiago ez dute eman, oraingoz. Horretarako, ikastaro guztiekin egin ohi duen bezala, bilera bat antolatu du Mendiriz Mendik. Otsailaren 24an izango da, datorren astelehenean, 20:00etan lokalean. Ikastaroan interesa duten guztientzako da, eta bertan azalduko dituzte nondik norakoak: prezioa, ordutegia, ikastaroaren zehaztasunak...

Informazio gehiagorako, lokaletik pasa, astelehen, ostegun edo ostiral iluntzean. **K**



Goizuetako eta Cordovillako suhiltzaileak, zauritua kamillan eramaten, Mandoegin. Argazkia: Nafarroako Suhiltzaileak

Mendizale bat erreskatatu zuten Mandoegin, Goizuetako suhiltzaileek

Txorkatila hautsita zuela, kamillan eraman behar izan zuten 60 urteko gizona herenegun, suhiltzaileek eta Cordovillako erreskate taldeak.

GOIZUETA ISTRIPUA

Mendizale bat erreskatatu behar izan zuten igandean, Mandoegin mendian. Txorkatila hautsi zuen 60 urteko gizonak, eta berearekin zeudenek, 112 telefono zenbakira deitu zuten. Horrela, bertara azaldu ziren Goizuetako suhiltzaile boluntarioak, eta Cordovillako suhiltzaile parke-tik etorritako erreskate taldeko

kideak, deiarri erantzunez.

Haize indartsu eta zakarrak, ordea, nabarmen zaildu zuen erreskatea. Ibilgailurik sartu ezin den pista batean erori zen gizona, eta helikopteroarekin eraman nahi zuten zauritua, ambulanzia zegoen tokiraino. Baina haizearen eraginez, kamilla baten gainean hartu behar izan zuten mendizalea, eta mendian behera eraman, suhil-

tzaileek eta erreskate taldekoek. Ondoren, ambulanzian sartu, eta Donostiako Ospitalera eraman zuten.

Orain lau hilabete, antzeko istripu bat izan zen, Mandoegin bertan. Estropozu egin eta erorita, tibia eta peronea hautsi zituen 63 urteko emakume batek, eta Nafarroako suhiltzaileek erreskatatu zuten orduan ere, Goizuetako suhiltzaileak tartean zirela. Egun hartan, baina, helikopteroan atera ahal izan zuten zauritua, eta airetik eraman zuten Iruñeara, Nafarroako Ospitalera. **K**

Barreterapia saioak bi asteazkenetan, Maialen Viaña psikologoarekin

Zilegi Eskolen barruan, bina saio eskainiko ditu bihar eta otsailaren 26an, goizez zein arratsalde. Izena eman behar da, doan.

ASTIGARRAGA ZILEGI ESKOLAK

Barreterapia lantzeko lau saio izango dira Astigarragan, datozen egunotan, Zilegi Eskolen barruan. Izan ere, bi saio eskainiko ditu Maialen Viaña Zabaleta psikologoak, bihar; eta beste bi saio, otsailaren 26an, asteazkenarekin hori ere.

Bi egunetan, musika eskolaren ondoko lokalean eskainiko du goizeko saioa, 09:30etan hasita; eta Herri Eskolako aretoan arratsaldekoa, 19:00etan. Edo-



Maialen Viaña Zabaleta psikologoak eskainiko ditu Barreterapia saioak.

zein txanda aukeratu daiteke, baina saioetan parte hartzeko, aldeztatik eman behar da izena: zilegieskola@aek.eus helbide elektronikora idatzita, edo kultur etxean. Doakoa izango da, hori bai. Partehartzaileek, esterilla, toalla edo kojinen bat eraman beharko dute.

Perkusio saioa, hilaren 25ean
Tartean, gainera, beste Zilegi Eskola bat ere antolatu dute, hilaren 25ean. Bi perkusio saio eskainiko du Jon Patxe musikari hernaniarrak: 09:30etan AEKren lokalean, eta 19:00etan kultur etxean. Izena eman behar da, baina doakoa da. **K**

Lilatoia elkarrekin prestatzeko, lau hitzordu

Atzo egin zuten aurrenekoa, Leitzako kiroldegian elkartuta; eta beste hiru izango dira. Hurrengo, bihar 18:00etan hasita.

ARANO-GOIZUETA LILATOIA

Martxoaren lehen izanen da Donostiako Lilatoia, aurten, bere 31garren edizioan. Eta beste urte batez, parte hartzeko deia luzatu du LAGA Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Berdintasun Batzordeak. Horretarako antolatutako, hain justu, elkarrekin entrenatzeko saioak, aurrekoetan egin bezala.

Zehazki, lau saio izanen dira, eta atzo bertan egin zuten aurrenekoa. Leitzan eginen dituzte denak, Anikote kiroldegitik abiatuta, eta arratsaldeko

18:00etan jarri dute hitzordua, elkartzeko. Bigarren saioa, bihar bertan eginen dute. Eta azkenean biak, datorren astean izanen dira: hilaren 24an eta 26an. Jakinarazi dute, gainera, entrenamendurako gida eskuragarri dagoela kiroldegian.

Lilatoira joateko doako autobusean, izenematea

Goizeko 10:30etan izanen da Lilatoia martxoaren lehen, Donostiako Bulebarretik abiatuta; eta dortsalak agortuta daude.

Bertara joateko, doako autobusa jarriko du Berdintasun Batzordeak, Leitzako Plazatik abiatuta, 09:00etan; eta buelta 18:00etan eginen dute, Bulebarretik bertatik. Zerbitzua erabiltzeko, hori bai, aldeztatik eman behar da izena, *WhatsApp* bidez: 674 086 926. Otsailaren 24ra arte dago epea. **K**

Aurreneko saioa gaur, komunikazio estrategiaz

Merkatari eta ostalari txikiei zuzendutako tailerra izango da, 14:15etatik 16:00etara Iturolan. Izena eman behar da, doan.

HERNANI MERKATARITZA

Herriko merkatarari eta ostalari txikiei zuzenduta, formakuntza saioak antolatu ditu Hernaniko Udalak, Berriak elkarrekin elkarlanean. Eta horietan aurrenekoa, gaur bertan egingo dute, Iturolan, 14:15etan hasi eta 16:00ak arte. Horretara, orde-

nagailua eramatea gomendatu dute, eta bestela, mugikorra.

Komunikazio estrategikoari buruz ariko dira, eta gai berri buruzko beste bi saio izango dira, otsailaren 25ean Iturolan eta martxoaren 3an Berriaken lokalean, ordu berean.

Formakuntza saioak doakoak dira, Berriakeko bazkide direnentzat zein ez direnentzat; baina parte hartzeko, izena eman behar da: Berriak elkarrekin (Andrekale 30, 943 33 30 49 edo berriak@hernanidendak.eus), edo Udaleko turismo eta merkataritza sailean (Biteri, 943 33 70 29 edo gurutze-a@hernani.eus). **K**

Mozorro eta karroza prestaketa, gaurtik

HERNANI GAZTELEKUA

Inauteriak gertu direla eta, bereziak izango dira aste honetako arratsaldeak, Hernaniko Gaztelekuan. Izan ere, gaurtik ostegunera bitarte, Inauterietarako mozorroak eta karrozak prestatzen ariko dira arratsaldero. Eta ostiralean, kalera aterako dira elkarrekin, Inauterien hasiera ospatzera. Larunbatean eta igandean, itxita.

Udaleko bi batzordek bilera, gaur

ASTIGARRAGA UDALA

Gaur egingo dute bilera, Astigarragako Udaleko bi batzordek. Aurrena, 10:30etan bilduko da Ogasuna eta Ondarea Batzordea, areto nagusian; eta gai garrantzitsuak dauzkate lantzeko: haur eskola berriaren jarduera eta obra-proiektua idazteko eta obra zuzendari-tza fakultatiborako kontratazio espedienteak; Udalaren eta Garbitariaren arteko hitzarmena; eta 2020ko aurrekontu partehartzaileak. Eta 13:15etan, Obra eta Zerbitzuen Batzordea bilduko da pleno aretoan, gai garrantzitsuekin hori ere: haur eskola berriaren proiektua, Emakumeon plazako hiritartze lanak...

Mutil nagusiek galdu, Navarvolei liderraren aurka

Nahiz eta partidu ona jokatu Euskal Ligan, mutilek 1-3 galdu zuten. Neskek erraz irabazi zuten Gipuzkoako Ligan Arantzazuko Aman kontra 3-0.

HERNANI BOLEIBOLA

Teknikoki maila haundiko partiduak jokatu dira aste bukaera honetan, emaitzak onak ez izan arren kasu guztietan, gozatu egin dute boleibol partiduak ikustera hurbildu direnek. Mutilek Euskal Ligako lehenengo sailkatua hartu zuten etxean eta Navarvolei taldeak argi utzi zuten zergatik den liderra 1-3 irabazi eta gero hernaniarrei. Denboraldiko partidurik onena ikusi zen, bi taldeak nor baino nor hasieratik amaiera arte, ia ehun minutuko partiduan. Etxekoek denboraldiko partidu onena jokatu zuten eta aurkariek ere

merezi zuten horrelako partidua irabaztea. Jokoak 20-25, 19-25, 25-20 eta 25-27 izan ziren, baina gustora geratu ziren jokariak, egin zuten partiduarekin. Emaitzak moralki indarra emango dio taldeari. Larunbatean Bera Bera bigarren sailkatuari bisita egin behar dio Hernanik eta berdin jokatuz gero irabazteko aukerak izango ditu.

Senior neskek, Arantzazuko Amaren aurka, ez zuten arazorik izan. 25-14, 25-14 eta 25-8, 3-0 irabazi zuten eta aurrenak dira sailkapenean.

Kadete neskeei dagokionez lehenengo urtekoak Arantzazuko Amaren aurka galdu zuten

3-0 eta bigarren urtekoak Fortunaren kontra emaitza berdinarekin galdu zuten etxean 0-3. Oraingoan donostiarrek irabazi zuten, baina bi taldeak oso maila berdinean daude. Bien artean erabakiko da aurtengo txapel-duna eta hemendik denboraldi amaierara arte hoberen lan egiten duenak irabaziko du Liga.

Infantil neskek garaipenak lortu zituzten Donostialdean; Lehenengo urtekoek Peñafloredaren etxean eta bigarren urtekoak Fortuna Txikiren aurka. Lehenengo eta hirugarren postuetan daude ezin hobeto azken txanparako. Denboraldi ederra egiten ari dira. **K**



Nesken taldeak erraz irabazi zuten.

ERRUGBIA

MUT. OHOR. MAILA	Hernani-Independiente	7-42
BARNERATZAILA	Uni Bilbao-Hernani	19-20
MUT. SUB 23	Hernani-Independiente	69-14
MUT. SUB 18	Uni Bilbao-Hernani Atletico	19-20
MUT. SUB 16	Gaztedi-Hernani Atletico	21-28
MUT. SUB 16	Bayonne-Hernani Atletico	12-7

FUTBOLA

MUT. OHOR. ERREG.	Hernani-Amaikak Bat	4-1
NSK. OHOR. ERREG.	Lagun Onak-Hernani	3-0
MUT. ERREG. PREF.	Mundarro-Vasconia	0-0
MUT. ERREG. PREF.	Roteta-Hernani	3-0
MUT. JUB. NAZIONALA	Hernani-Gernika	5-3
MUT. JUB. OHOR. MAILA	Mundarro-Kostkas	0-1
MUT. JUB. OHOR. MAILA	Trintxerpe-Hernani	3-3
MUT. JUB. 1GO MAILA	Gure Txokoa-Mundarro	1-3
MUT. JUB. 1GO MAILA	Urnieta-Hernani	2-3
MUT. KAD. OHOR. MAILA	Ostadar-Mundarro	4-0
MUT. KAD. OHOR. MAILA	Hernani-Añorga	1-5
NSK. KAD. 1GO MAILA	Mundarro-Martutene	5-0
MUT. KAD. 1GO MAILA	Amara Berri-Mundarro	2-2
MUT. KAD. 1GO MAILA	Hernani-Urnieta	1-0
NSK. INF. OHOR. MAILA	Hernani-Goierri Gorri	2-7
MUT. INF. OHOR. MAILA	Mundarro-Orioko	0-1
MUT. INF. OHOR. MAILA	Hernani-Lengokoak	0-2
MUT. INF. 1GO MAILA	Mundarro-Martutene	0-0
MUT. INFANTIL TXIKI	Tolosa-Mundarro	3-1
MUT. INF. 1GO MAILA	Hernani-Udarregi	5-1

SASKIBALOIA

MUT. GIPUZ. 1GO MAILA	Internacional-Mundarro	63-49
-----------------------	------------------------	-------

MUT. GIPUZ. 1GO MAILA	Debasket-Hernani	67-59
NSK. GIPUZ. 2. MAILA	Bergara Soralue-Mundarro	42-36
MUT. GIPUZ. 3. MAILA	Mundarro-Aloña Mendi	50-46
NSK. JUNIORRAK	Mundarro-Eroibide	41-49
MUT. JUNIORRAK	Hernani-Easo Urdaburu	52-46
MUT. KADETEAK	Antigua Luberi-Hernani	98-31
MUT. KADETEAK	Mundarro 1-Goierri	57-53
MUT. KADETEAK	Andraitz-Mundarro 2	42-51
MUT. INFANTILAK	Hernani-Mundarro	48-29

BOLEIBOLA

MUT. EUSKAL LIGA	Hernani-Navarvoley	1-3
NSK. GIPUZ. TXAP.	Hernani-Arantzazuko Ama	3-0
NSK. KADETEAK	Hernani 2-Fortuna 1	0-3
NSK. KADETEAK	Arantzazuko Ama-Hernani 1	3-0
NSK. INFANTILAK	Hernani 2-Fortuna Txiki	2-3
NSK. INFANTILAK	Peñafloreda-Hernani 1	1-3

ESKUBALOIA

NSK. JUBENILAK	Aloña Mendi-Mundarro	31-30
MUT. JUBENILAK	Saieko-Hernani	34-27
MUT. KADETEAK	Hernani 1-Egia	31-32
MUT. KADETEAK	Amenabar-Hernani 2	32-29
MUT. INFANTILAK	Hernani 1-Eibar	26-30

ERREMONTA

1GO PARTIDUA	Urrutia II-Arruarte/Beñat-Labaka	33-35
2. PARTIDUA	Juanenea-Barrenetxea/Urriza-Ion	36-40
3. PARTIDUA	Ezkurra II-Agirrezabala/Matxin III-Azpiroz	20-40
4. PARTIDUA	Segurola-Zubiri/Aldabe-Aizpuru III	30-26

PALA

NSK. EH. IREKIA 2. MAILA	Ekhiñe-Eli/Obe-Auña	20-30
NSK. EH. IREKIA 2. MAILA	Orozko 2/Ainhua-Eider	18-30

NSK. EH. IREKIA 3. MAILA	Enara-Ane/Orozko	27-30
NSK. ELITEA	Irazustabarrena-Ruiz de Azua/Galdos-Arrieta	30-20
NSK. ELITEA	Murillo-Saez/Isasmendi-Mendizabal	26-30

ESKU PELOTA

MUT. NAG. TRINKETEA	Tolosa/Arizmendi-Aldunberri	21-40
MUT. JUB. TRINKETEA	Oiarpe/Oiartzabal-Mujika	40-23
MUT. KAD. TRINKETEA	Behar Zana/Arabaolaza-Urdanpilleta	40-15
MUT. NAG. UDABERRI	Exposito-Labaka/Oberena	14-22
MUT. NAG. UDABERRI	Urkizo-Ortiz de Urbina/Intza	22-19
MUT. NAG. UDABERRI	Tolosa/Arizmendi-Altuna	19-22
MUT. NAG.	Najerino/Ioritz Arrieta	0-2
MUT. KAD. UDABERRI	Deskarga-Alegria/Urdangarin-Saralegi	22-14
MUT. KAD. UDABERRI	Oiarpe/Jara-Etxarri	22-18
MUT. KAD. UDABERRI	Oiarpe/Arabaolaza-Manterola	22-13
MUT. INFANTILAK	Gure Txeru/Gorrotxategi-Urdangarin	4-18
MUT. INFANTILAK	Pascual-Azpeitia/Añorga	18-10
MUT. INFANTILAK	Moral-Urrutia/Alberdi-Otaño	13-18
MUT. ALEBINAK	Zestoa/Gomez-Etxeberria	16-8
MUT. ALEBINAK	Arretxe-Alberdi/Bergara	2-16
ZIZURREKO TXAP.	Unax Uitz/Larraun	7-18
IRURITAKO TXAP.	Legarreta-Aiur Elizazu/Baztan	8-18
IRURITAKO TXAP.	Iturbe-Azpeitia/Gazteleku	8-18
MENDIALDEKO TXAP.	Sagastibeltza-Legarreta/Aurrera-Larraun	18-14
MENDIALDEKO TXAP.	Aurrera/Aranberri-Narbarte	18-5
MENDIALDEKO TXAP.	Aurrera/Seges-Larin	18-6
MENDIALDEKO TXAP.	Sagardui-Legarreta/Zurutza-Garmendia	10-18
MENDIALDEKO TXAP.	Ugartemendia-Apezteia/Salaberria-Ruiz	10-18
MENDIALDEKO TXAP.	Saralegi/Aizkorbe	22-21

WATERPOLOA

MUT. EUSKAL LIGA 2. MAILA	Hernani-Portugalete B	11-9
---------------------------	-----------------------	------

Bigarren postuan, Hernaniko Ohorezko Erregional taldea

Hernaniko Ohorezko Erregionalak, berriro ere garaipena lortu zuen eta bigarren postuari eusten dio. Gainontzeko taldeak ezin izan zituzten arerioak garaitu.

ASTIGARRAGA HERNANI FUTBOLA

Hernaniko Ohorezko Erregional Preferenteak, Amaika bat taldearen aurka jokatu zuen pasaden larunbatean Zubipen, eta 4-0 eko emaitzarekin amaitu zuen partidua. Horren ondorioz, Hernani sailkapenean bigarren doa, 46 punturekin, eta aurretik Eibar doa, Hernanik baino bi puntu gehiago edukiz.

Erregional preferenteetan ez daude oso emaitza onak. Hernanik galdu egin zuen Roteta taldearen aurka, eta 11. postuan doa 21 punturekin, aurretik Santo Tomas doa 3 puntu gehiagorekin, eta Hernaniren atzetik, Axular eta Kostkas doaz, 21 punturekin hauek ere.

Mundarro, lider doan Vasconia taldea jaso zuen Zarkumendegin. Eta hasieratik izan zen talde donostiarra baloiaren jabe. Bigarren zatian aldiz Astigarragako taldea intentsitate hanudiarekin hasi zen, eta 0-0 emaitzarekin amaitu zen partidua. Orain Mundarro, 8.



Pello Alberdi, asistentziako pasea egiteko prest.

postuan doa 31 punturekin, eta aurretik Roteta du, 2 puntuko aldea ateraz.

Ohorezko Erregional neska

Garmendipen jokatu zuten Lagunak taldearen aurka, eta 4-0 eko porrotarekin itzuli ziren etxera Hernaniko neska. **K**

Emaitza gazi-gozaok, bailarakoek

Pasaden asteburuan, emaitza gazi-gozaok lortu zituzten Hernaniko eta Astigarragako jokalariek.

ASTIGARRAGA HERNANI SASKIBALOA

Hernaniko saskibaloitako taldeko lehenengo mailako taldeak, Debasket izan zuen aurkari, pasaden asteburuan, eta ezin izan zuten hau garaitu. 67-59 amaitu zen partidua, orain Hernani 11. postuan doa, 24 punturekin. Mundaroren kasuan, CD Internacionalen aurkako norgehi-

goka izan zuen, eta Mundarro atera zen garaile, 64-68 emaitzarekin, eta ondorioz astigarragako taldea 11. postuan doa, 23 punturekin, Hernani aurrean duela, puntu bateko diferentziarekin.

Junior errendimenduan, Hernani garaile

Etxean jokatu zuten Hernaniko Junior taldekoek. Zaleen animo

o eta esfortzuaren ondorioa izan zen lortutako emaitza (52-46). Beraz, sailkapenean 6. postuari eusten diote juniorrek, 19 puntu lortuta.

Mundarroko 2. mailako nesken taldeak, ez zuen emaitza positiborik lortu, galdu egin baitzuen Bergara Soraluze taldearen aurka (42-36). Hala ere, postu onean jarraitzen dute, klasifikazioan 4. postuan baitoaz, 24 punturekin, eta aurretik Bergara Soraluze daukate, puntu batera. **K**



Rosa Santos ezkerrean, pasaden larunbateko Bolako irabazlea.

31 punturekin Rosa Santos nagusi, Bolan

Bolako Lehendakari Txapelketan aritu ziren hernaniarrak, eta Tokan ereñotzuarrak.

URUMEA TOKA ETA BOLA

Pasaden larunbatean, bolan Lehendakari Txapelketari ekin zioten, eta estreinako tiraldiak Seguran izan ziren.

Orokorrean hernaniarrak ez ziren emaitza onekin itzuli

etxera, «nahiko panggal aritu ziren».

Hala ere, emakumezkoen bola jardunaldian, Hernaniko Rosa Santosek irabazi zuen, 31 puntu lortuta eta Lehendakari Txapelketako lehen tiraldiko txapela eraman zuen etxera.

Toka ere Seguran izan zen, eta ereñotzuarrak parte hartu zuten bertan. Hauek, hernaniarren gisara, emaitza negatiboak lortu zituzten. **K**

Porrotak Hernanik, eta garaipena Mundarro

Eskubaloiko Hernaniko taldeek ez zituzten emaitza onak lortu asteburuan jokaturako partiduetan, Mundarro aldiz, bai.

ASTIGARRAGA HERNANI ESKUBALOA

Ez dira emaitza onak lortu Hernaniko eskubaloiean. Talde guztietik porrota jaso baitute. Mutil jubenilak, Saieko taldearen aurka jokatu zuten La Sallen, eta 34-27 emaitzarekin amaitu zen partidua. Mutil kadeteak 1 taldeak, gutxiengatik galdu zuten

Egia taldearen aurka, 31-32. Eta mutil kadeteak 2 taldea ere horixe ibili zen, baina ez zuten garaipenik lortu, Amenabar nagusitu baitzen (32-29).

Mutil infantilek ere ez zuten garaipenik lortu, Eibarren aurka jokatu zuen Hernaniko infantil 1 taldeak, eta 26-30 amaitu zuten.

Astigarrarek garaipena, Aloña Berriren aurka

Mundaroren kasuan, gutxiengatik, baina garaipena lortu zuten. Aloña Berri taldearekin izan zuen norgehiagoka eta azkenik, esfortzuaren ondorioz talde astigarrak lortu zuen garaipena, 31-30 emaitzarekin. **K**

IRAGARKI MERKEAK

LOGIKALINE enpresak HARRERAKO LANPOSTU bat bete behar du. Lana Hernanin egiteko da.

Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Frantsesa eta ingelesa eskatzen dira. Lana luzerako da.

Bidali c.v. rrrh@logikaline.com edo deitu 943 31 86 06.

LOGIKALINE enpresak TELEOPERADORA LANPOSTU bat bete behar du. Lana Hernanin egiteko da.

Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta ingelesa eskatzen dira. Lanaldi osoa eta luzerako. **Bidali c.v. rrrh@logikaline.com edo deitu 943 31 86 06.**

Martxan dagoen okindegia alokagai. Interesatuek deitu: 644 319 054

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura, ... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

EGURALDIA

GAUR

Gaur giro freskoagoa izango dugu, hodei eta ostarteekin. Hala ere, ez dira atzokoak bezain ugariak izango, tarteka urdin-guneak aterako baitira. Gaurko minimoak behera egingo dute. **Min.6° / Max.12°**

BIHAR

Bihar eguna egonkortu egingo da, zerua hodei gutxiarekin izango dugu, orokorrean. Hala ere, goizean behe-hodei batzuk egongo dira. Temperatura maximoak bi gradu igoko dira. **Min.5° / Max.14°**

(euskalmet)

TELEFONO ZENBAKIAK

TAXIAK 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALZAINGOA** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA** 943 464622 **AUTOBUSAK** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korroa Goizueta-**

Hernani: 948 514037 **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 **ANBULATORIOA** 943 006666 - 900 203050 (Hernani)

943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)

FARMAZIAK

Egunez: Castilla Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauz: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738**

Goizueta: Nagusia 64 948 514353



Adarra Memorialean mutilen infantil lasterketa.

Hodei Lujanbio hirugarren Lezoko mendi lasterketan

Asteburuan mendi, errepide, kros eta pistako lasterketak jokatu dira hainbat lekutan eta denetan aritu dira bailarako korrikalariak.

URUMEA ATLETISMOA

Mendi eta atletismo lasterketa ugari jokatu dira asteburuan zehar, baita Hernanin bertan ere. Mendian barrena, krosetan, pistan eta errepidean egon dira lasterketak eta emaitzarik esanguratsuenak Hodei Lujanbio goizuetarrak lortu du Lezo-Jaizkibelgo zazpigarren mendi lasterketan. Goizuetarrak hirugarren amaitu du eta podiumera igotzea lortu zuen. Etxeko Ander Iñarrak irabazi zuen eta Joxe Amundarain hondarribiarrak amaitu zuen bigarren. Hirurak minutu t'erdiren bueltan sartu ziren helmugan, laugarrena jada hiru minutura aldentuz.

Hernanitik Xabi Intxauspe, Aritz Irazu, Sergio Fernández, Jon Iraola, Miguel Anjel Flores, Granada eta Maddi Amatriain ere egon ziren bertan. Astigarra-gako Libe Lafuentek eta Txarli Gómezek 14 kilometroak osatu zituzten eta Hodei Lujanbiorekin batera Garikoitz Lopez izan zen goizuetarren ordezkaria Lezo.

Antzuolan ere jokatu zen mendi lasterketa eta bertan parte hartu zuten Borja Tejedor eta Mikel Ruiz de Galarretak.

Hoki Guerrero eta Aitziber Martin elkarrekin Irungo maratoi erdian

Hori mendi lasterketei dagokionez, baina korrikako beste modalitate ugari ere egon dira asteburuan zehar.

Errepidean Irunen 10 ki-

lometroko eta maratoi erdiko lasterketak jokatu ziren. Emaitzarik esanguratsuenak nesken mailan iritsi ziren eta maratoi erdiko lasterketan. Hoki Guerrero eta Aitziber Martin hernaniarrak elkarrekin iritsi ziren helmugara laugarren eta bosgarren postuetan, hurrenez hurren. Beraien denbora ordu bete 31 minutu eta 31 segundokoa izan zen. Garaipena Ibarrako Maialen Muñozek lortu zuen ordu bete 25 minutu eta 8 segundoekin.

Mutiletan bailarako korrikalaririk azkarrena Vincent Pastor izan zen hamabosgarren postuan ordu bete 19 minutu eta 3 segundoko denborarekin. Anderson Sanchezek 37garren bukatu zuen maratoi erdia. Behobia eta Donostiako garaile den Chakib Lachgar errenterriarrak lortu zuen hemen ere garaipena. Hamar kilometroko lasterketan Iker Martinez astigartarrak indartsu amaitu zuen zazpigarren postuan. Lehengo postua Oriola joan zen Hosain Kaanacheren eskutik.

Gipuzkoako eskolarteko kros txapelketaren garaipena Orio eta Azkoitira

Krosetan Orioko beste lasterkari batek irabazi zuen Hernaniko Adarra Memorialeko kros txapelketa da Hernanin asteburuan jokatu dena eta bertan infantil mutiletan Martin Iriondo oriotarra izan zen azkarrena eta infantil

nesketan Jone Sudupe azkoitiarra.

Bi maila hauetan baziren hernaniarrak. Nesketan Elene Huitzik bosgarren amaitu zuen eta Inge Gomezek hamabigarren. 50 partaide izan zituen lasterketan nesketan eta 53 mutiletan. Azken honetan Mikel Camposek 28garren egin zuen.

Alebinak ere aritu ziren bai mutil eta bai nesketan. Garaipenak Goierri aldera joan ziren. Nesketan Ane Iparragirrek irabazi zuen eta mutiletan Jon Esquisabelek. Lasterketa honetan Lur Oconek 15garren bukatu zuen. Esan 69 partaide izan zirela mutiletan. Nesketan 63k amaitu zuten lasterketa eta sei hernaniarrek hartu zuten parte: Izaro Alsua (38), Intza Galdos (39), Edurne Albisu (50), Irene Zubeldia (56), Uxue Trujillo (57) eta Nahia Mitxelena (58).

Gaur egun Adarra Memorialeko atletismo pistaren inguruetan antolatzen da eta partaidetza asko biltzen du bi mailatan.

Pista estalian gazteen Gipuzkoako Txapelketako bigarren jardunaldia

Pista estalian ere Gipuzkoako txapelketak jokatu dira asteburuan. Amaiur Velezek berriz ere garaipena lortu zuen 60 metro hesietan. Podiumetik gertu geratu ziren beste hainbat lasterkari gazte hernaniar.

Oier Elizegi, Amaiur Velez, Endika Barral, Arixen Unanue, Eider Garro, Naroa San Miguel, Naroa Vieites, Naia Gómez eta Nagore Urkiola izan dira bertan parte hartu duten hernaniarrak froga desberdinetan. **K**

Irazustabarrenak finala jokatu du EH txapelketan

20-30 irabazi du Ruiz de Azuarekin batera eta azkenengo partidura sailkatu da, ez ordea Arrieta.

HERNANI PALA

Zaldibarreko zabortegiko istri-puaren ondorioz, segurtasun neurri gisa, Emakumezko Gomazko Paletaren Euskal Herriko elite txapelketaren jardunaldia ez zen asteburuan Mallabian jokatu, Elorrion baizik. Maila haundiko bi partidu jokatu ziren eta Amaia Irazustabarrena

finalerako sailkatu da.

Ruiz de Azuarekin batera 30-20 garaitu zituzten Galdos eta Arrieta. Arrieta ez da finalerako sailkatu. Beste partiduan, Muriello eta Saezek 26-30 galdu zuten Isasmendi eta Mendizabalen kontra.

Bestetik Euskal Herriko Irekian Ainhoa eta Eiderrek irabazi egin zuten Orozko 2ren aurka. Ekhiñe eta Elik berriz galdu egin zuten Obe eta Auñaren aurka eta hirugarren mailan Enara eta anek ez zuten Orozko garaitzerik izan eta 27-30 galdu zuten beraien partidua. **K**



Mendialdeko txapelketa hasi dira jokatzeko.

Asteburua ez da ona izan pelotari hernaniarrentzat

Bederatzi partidu irabazi dira eta hamaika galdu. Trinketean ere ez da asteburu oparoa izan.

HERNANI-GOIZUETA PELOTA

Emaitzak ez dira onak izan asteburuan Hernaniko pelotari-entzat. Bederatzi partidu irabazi dira eta hamaika galdu. Emaitzarik txarrenak txapelketa pribatuetan eta trinketean izan dira. Unax Uitzu jubenilak galdu egin zuen Zizurren finalaurdinetan eta kanporatua geratu

da. Hala ere infantil, kadete eta seniorretan garaipen onak lortu dira Udaberri txapelketan. Trinketean Mujika eta Oizartabalek galdu egin zuten eta finalerako zuzenean ez dira sailkatu. Orain Insausti eta Lasa taldekideen aurka erabakiko da finalista.

Mendialdeko txapelketan goizuetarrak

Pilotari goizuetarrak Mendialdeko txapelketan aritu dira maila desberdinetan. Goizuetarren artean ere jokatu dute eta guztira hiru partidu irabazi dira eta hiru galdu. **K**

KRONIKAK KAZETARIA BEHAR DU AMATASUN BAJA DELA ETA

Bidali zure CV-a, otsailak 29ra arte:

kronika@kronika.eus
Dobera Euskara Elkarte
Larramendi 11 behe
20.120 HERNANI

Kronika



ESKATZEN DA:

/ Euskera ondo menperatzea, hitzez zein idatziz.
/ Lantaldean aritzeko gaitasuna.
/ Iniziatiba eta enpatia.
/ Kazetaritza edo komunikazio ikasketak izatea.

/ Aktualitatearen jarraipena egitea.
/ Kazetari lanetan esperientzia.
/ Maketatze, eta argazki eta bideoak editatzeko programen ezagutza.
/ Sare sozialak menperatzea.

BALORATUKO DA:

/ Urumea bailara ezagutzea.
/ Doberako bazkide izatea.
/ Tokiko hedabideak ezagutzea.

ESKAINIKO ZAIO:

/ Kontrata: amatasun bajari dagokiona.
/ Eginkizunari dagozkion soldata eta lan baldintzak.

Baldintzak betetzen dituztenen artean probak egin ondoren bat aukeratu da.